EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

GRUPO spri TALDEA

Espediente zk.: 2021032 harmonizatua
Kontratazioaren xedea: "EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIAREN barruko jarduerak diseinatzen eta kudeatzen laguntzeko Idazkaritza Teknikoa" izeneko zerbitzua ematea
Dokumentua: Preskripzio tekniko partikularren baldintza-agiria.

1. Sarrera

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia

XII. legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da Euskadik arrakastaz gainditzea mundu zabalean indarrean diren hiru trantsizio handiak –energia- eta ingurumen-trantsizioa, trantsizio soziala eta sanitarioa, eta trantsizio teknologikoa eta digitala–, eta besteak baino lehenago egokitzea haietara.

Trantsizio teknologiko-digitalari itxaropenez egiten diogu aurre, uste baitugu eraldaketa digitala aukera paregabea dela gure lehiakortasuna indartzeko, egun bizi dugun egoera delikatuan.

Gizarte erabat digitalean, administrazio publikoak motor izan behar du lurralde osoaren, enpresen eta herritarren eraldaketa digitala lortzeko. Bere gain hartu behar du beharrezko lidergo-konpromisoa, berrikuntza sustatu behar du eta esperimentatu egin behar du, soluzio propioak edo pribatuak aurkitzeko.

Horrenbestez, estrategia berritzaile batekin jarriko dira abian digitalizazioa lehentasunez eta premiaz sustatzeko politika publikoak. Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia 2021eko martxoan onartu zen. Estrategia horrek bost urteko sustapen-politika publikoak gidatuko ditu modu oso fokalizatuan, inpaktu handiarekin eta Euskadiren dimentsioari eta ezaugarriei egokitua. Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko, esteka hau bisitatu daiteke: https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/67948-gobierno-vasco-destinara-400-millones-euros-apoyar-forma-sinergica-proactiva-transformacion-digital-euskadi-consejo-gobierno-2021. Hona hemen haren helburuak:

- Palanka teknologikoak eta laguntza-bideratzaileak aplikazio-esparruekin konektatzea, eta bektore hauei ematea lehentasuna:
    - 5G konektibitatea.
    - Adimen artifiziala.
    - Zibersegurtasuna eta konfiantza digitala.
    - Konputazio kuantikoa.
    - Hodeiko zerbitzuak.
    - Elkarreragingarritasun publiko-pribatuko zerbitzuak.

- Garapena indartzea eta bideratzaileen ahalmen frogatua aprobetxatzea; pertsonek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu eta egokiro garatu nahi ditugu haien gaitasunak, gizarte prestatu eta inklusiboa izateko, baita arlo digitalean ere.

- Funtsezko aplikazio-eremuetan azkar barneratu daitezen aktibatzea eta sustatzea. Funtsezko aplikazio-eremuak jarduera publikoaren eta pribatuaren arlo espezifikoak dira, eta haiek ari dira jasaten eraginik handiena teknologia berrien sorreragatik; halaber, balioa sortzeko modu berrietarantz ari dira egiten, eta eredu berriak ari dira garatzen, orobat, harreman sozial eta produktiboetarako edo negozioetarako.

Estrategia erabat bideraturik dago aplikazio praktikora, eta bermatu nahi du palanka teknologikoen ezarpena balio erantsi bihurtzen dela Euskadiko sektore estrategikoetarako. Ildo horretan, lau ekintza-bektoreren eta hemezortzina ekintza-lerroren bidez mamituko da.

- 1. bektorea. Ekimen bereziak. Ekimen berezietako proiektuek kudeaketa- eta garapen-lan handia eskatzen dute, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzako hainbat sail ez ezik beste erakunde batzuk ere inplikatzen dituzte. Batzuetan, enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoekin lankidetzan aritzea ere eskatzen dute.

- 2. bektorea. Ekosistema integratua. Erabakigarria da enpresen arteko lankidetza etengabea erraztuko duten ekimenak izatea, erabilera-kasuak zabaltzeko eta partekatzeko topaketak antolatzea, eta nazioarteko sareetan integratzea, azken horietan garatzen eta zabaltzen baita ezagutza edo horietan zehazten baitira teknologien bilakaera markatuko duten jarraibide teknikoak edo erregulatzaileak.

- 3. bektorea. Gaitasun digitalak. Gizartearen eta erakundeen heldutasun digitala lortzeko, beharrezkoak dira kultura eta gaitasun digitala, trebetasunak, ezagutzak eta talentua. Horregatik, pertsonak dira eraldaketa digitalaren arrakastaren zati handi bat, haiek baitira digitalizazioaren subjektu eta objektu. Horretarako, etengabeko eboluzioan lan egin behar da, enpresen eta gizartearen beharrei erantzuteko, eta kolektibo guztiak bildu behar dira.

  Pandemiak behartutako gizarte-distantziak eta presentzialtasunik ezak agerian utzi du beharrezkoa dela soluzio digitalak topatzea gure eguneroko bizitzako nahitaezko izapide ugarietarako, eta bistaratu du, orobat, gaitasun-gabeziak ditugula bide horretarako. Ibilbide luzeko prozesua da gaitasun digitalak hobetzea, eta diagnostiko egoki bat eta etengabeko ikaskuntza eskatzen ditu.

- 4. bektorea. Azelerazioa, esperimentazioa eta erabilera. Bektore honetan biltzen diren jarduketek sektore guztietako enpresei laguntza eskainiko diete palanka teknologikoak erabiltzeagatik proiektu berritzaileak abian jartzen.

  Enpresak digitalizazioaren aldeko apustu argia egiten ari dira, eta horren erakusgarri dira laguntzak eskatzen dituzten proiektuen gorakada nabarmena eta hornitzaileen eskaintzaren bilakaera positiboa. 2022an, eskariaren bizkortze horren tentsioa mantenduko da lehiakortasuna hobetzeko bideak bilatzeko, oraindik ere egoera gorabeheratsua bizi duen giro globalean. Arreta berezia ipiniko zaie enpresa txiki eta ertainei, erabakigarriak baitira onarpena orokorra izan dadin.

Europar Batasuneko Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI)

Orkestrak egindako Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizeak erakusten du zer egoeratan dagoen Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko herrialdeekin alderatuta, eta azken urteotan izaniko bilakaera ere jasotzen du.

Txosten horrek modu egituratuan aurkezten ditu azken indizerako eta tarteko mailetarako lortutako emaitzak. Balio horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideen posizio erlatiboa alderatzen da. Txosten hori tresna bikaina da informazioaren gizarteak Euskadin zer bilakaera izan duen jakiteko, bai eta hobetu behar ditugun puntuak identifikatzeko ere, adierazle horietan Europako lehen postura hurbiltzeko.

2020ko DESI indizeak bost dimentsiotan biltzen ditu indizeak: **konektibitatea, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, teknologia digitalaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak**. Dimentsio bakoitzaren haztapenen banaketa ez da aldatzen aurreko urteetako azken adierazlearekiko (konektibitatea % 25, giza kapitala % 25, Interneteko zerbitzuen erabilera % 15, teknologia digitalaren integrazioa % 20 eta zerbitzu publiko digitalak % 15). Azpidimentsioak ere mantendu dira, zenbait izen aldatu badira ere. Adierazleei dagokienez gertatu dira aldaketa nagusiak azken txostenean, batez ere berriak sartu baitira dimentsio guztietan. D

Nabarmentzekoa da Europako bigarren adierazle digital bat sartu dela: Emakumeen Indize Digitala (WiD). Europako Batzordeak egin du indize hori ere, eta, haren bidez, emakumeak ekonomian eta gizarte digitalean duen parte-hartzea neurtu eta monitorizatu daiteke. DESI indizearekin bezala, Europar Batasuneko herrialdeen jardunaren diagnostikoa lortzen da WiD indizearen bidez, eta, hala, alderatu eta sailkatu egin daitezke. Emakumeak une jakin batean eremu digitalean duen adierazgarritasuna islatzen duen emaitzatik harago, indize honen tankerako neurketa-metodo sendo eta sistematiko bat izatearen azken helburua da ebaluatzea egiten ari diren ahaleginek zer neurritan lortzen duten genero-arrakala iraunkorra murriztea; izan ere, jakin badakigu existitzen dela arrakala hori, eta jakina da, orobat, emakumeak esparru digitalean gero eta gehiago sartuz egin behar zaiola aurre.

WiD indizeak hamahiru adierazle ditu, hiru dimentsiotan taldekatuta: Interneten erabilera, Internet erabiltzeko gaitasunak eta gaitasun espezializatuak eta enplegua. DESI indizean ez bezala, WiD indizean ez dago azpidimentsioen tarteko mailarik, baina kalkulu-metodoa antzekoa da, normalizazio-prozesuekin eta haztapenekin (hasi adierazlearen balio absolututik, eta amaierako indizea lortu arte). WiD indizearen kasuan, baliokidea da dimentsio bakoitzaren pisua (% 33,33).

ORKESTRAren webgunean kontsulta daiteke txostena:

https://www.orkestra.deusto.es/es/investigacion/publicaciones/informes/cuadernos-orkestra/2172-210007-economia-sociedades-digitales-pais-vasco-desi-2020

2. Kontratuaren xedea

Helburua da sostengua ematea SPRIren Eraldaketa Digitalaren Arloari eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Informazioaren Gizartea sustatzearekin lotuta dituzten eginkizunak betetzeko, eta, zehazki, “EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIA” berria taxutzeko eta haren hasierako jarraipena egiteko. Horretarako, lan horiek gauzatuko dituen Idazkaritza Tekniko bat behar da.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak –Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzaren bidez– eta SPRIk EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIA hedatzeko lanak egiteko agindu diote SPRIren Eraldaketa Digitalaren Arloari. Ildo horretan, SPRIren arlo horren helburua da euskarria ematea estrategia berrian sartutako politiken hedapenari eta betearazpenaren jarraipenari, kontuan izanik betiere SPRIren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskumenen barruan sartzen direla politika horiek.

Alde horretatik, SPRIren Eraldaketa Digitalaren arloak “EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIAREN barruko jarduerak diseinatzen eta kudeatzen laguntzeko Idazkaritza Teknikoa” kontratatu beharra dauka. Haren egitekoa izango da preskripzio teknikoen baldintza-agiri honetako hurrengo atalean definituriko lanak egitea.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. Lanak egiteko EAEtik kanpo bidaiatu behar bada, baldintza-agiri honen norainokoaren barruan estali ahalko da, betiere SPRIren aldez aurreko baimenarekin.

Lanek hamabi hilabete iraungo dute, kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

3. Garatu beharreko jardueren deskribapen orokorra

Kontratuaren xede diren jarduerak

Oro har, “Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategian” sartutako jardueren diseinua eta kudeaketa laguntzera bideratutako jarduera guztiak. Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiako 18 jarduera-ildoen aurrerapen-maila eta teknologia bideratzaileen ezarpen-maila kontuan hartuta, garatu beharreko jarduerek dedikazio handiagoa beharko dute aurrerapen edo garapen txikieneko egoeran daudenetan.

Idazkaritza Teknikoak garatu beharreko jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Eusko Jaurlaritzako ***Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzari*** laguntza ematea Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia kudeatzearekin, hedatzearekin eta haren jarraipena egitearekin zerikusia duten zeregin guztietan.
- EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIAREN ***jarduera-ildoak hedatzeko eta birsortzeko proposamenak egitea***, ezartzen diren lehentasunen arabera.
- ***Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia hedatzeari dagokionez***, Jaurlaritzaren prozedurek eskatzen dituzten dokumentu guztiak egitea.
- ***Sustapen-zerbitzu eta -programa berriak diseinatzea eta proposatzea***, eta, horretarako, aldez aurretik informazioa biltzea Eusko Jaurlaritzako sailek eta arlo horretan eskumena duten gainerako administrazioek eraldaketa digitalarekin loturik bultzatutako politikei buruz.
- Euskal Autonomia Erkidegoan informazioaren gizartearen sustapenean jardun dezaketen ***eragile publiko, ekonomiko eta sozialak*** estrategiaren lehentasunetan elkartzea ahalbidetuko duten mekanismoak diseinatzea, arlo horretan euskal ekosistema bat sendotzeko.
- Eraldaketa digitaleko politiken ***jardunbide egokiak identifikatzea*** Europako eta munduko beste eremu batzuetako herrialde aurreratuenetan, betiere eremu horretan enpresentzat nabarmentzen badira eta aplikagarriak badira Euskal Autonomia Erkidegoan. Halaber, lehentasunezkotzat identifikatutako palanka teknologikoen erabilera bultzatzea helburu duten jardunbide egokiak identifikatzea.
- Eraldaketa digitalaren ***adierazle estatistikoen jarraipena egitea***, bai Euskadin, bai erreferentziazko beste eremu batzuetan (Estatua, Europa, herrialde aitzindariak). Erreferentziatzat hartzea Eustaten eta INEren adierazleak eta Euskadin Orkestrak egindako DESI txostenean jasotakoak.
- Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren jarraipena egiteko barne-txostenak eta zabaltzeko eta/edo ***argitaratzeko*** beste batzuk egitea.
- Proiektuak garatuko dituzten ***arduradunei eta lantaldeei aholkularitza teknikoa eskaintzea***, proiektuen kalitatea bermatzeko, abiapuntuko helburu eta zehaztapenetan oinarrituta, eta bermatzeko, orobat, bat datozela horiek guztiak Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategian jarraibide orokorrekin.
- ***Zaintza eta prospekzio teknologikoko lanak diseinatzea eta egitea***, ezarritako helburuetan eta abian diren proiektuetan eragina izan dezaketen joerak behatzeko, eta jarraibideak ematea, joera horiek zehaztutako etorkizuneko egoerara egokitzeko.
- ***Jarraipena eta ebaluazioa***: horrelako proiektu bati ekiteko beharrezko jarduerek eskatzen dute hainbat eragile koordinatzea, proiektuak irauten duen bitartean hainbat jarduera planifikatzea, dokumentazioa kudeatzea eta lortzen diren emaitzak sistematikoki jaso beharra. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismo bat ezartzea, gauzatzen den bitartean “hobetu” ahal izateko. Hartarako, honako hauek egin eta ezarriko dira: txostenak, adierazleak, gauzatzea/inpaktua, kalitate-kontrola, arriskuen kudeaketa.

Zerbitzuaren dimentsionamendua

Proiekturako izendatutako pertsona-taldeak zerbitzuaren premietara egokitu beharko du, eta zeregin bakoitzerako baliabide egokiak esleituko ditu. Orobat, modu arrazoizkoan izendatuko ditu baldintza-agirian jasotako hiru profil posibleetako pertsonak. Lan-karga ez ezik, une bakoitzeko jarraipenaren intentsitatea ere kontuan hartuko du horretarako.

4. Lan-metodologia kontratua gauzatzean

Lan-metodologia baten bidez gauzatu beharko da "EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALEKO ESTRATEGIAREN barruko jarduerak diseinatzen eta kudeatzen laguntzeko Idazkaritza Teknikoaren" barruko lanak egiteko proposamena, eta honako puntu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Mugarri nagusiak, entregagaiak eta horietako bakoitzari lotutako giza baliabideak definitzea.
- Lantaldearen antolaketa, erantzukizunak eta dedikazioak.

5. Proiektu honen esku jarriko diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta material zehatzak. Taldearen gaitasun teknikoa eta esperientzia.

Aurreko atalean deskribatutako lanak egiteko, beharrezkotzat jotzen da elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan esperientzia duten pertsona-talde bat izatea, bereziki "teknologia bideratzaile" deiturikoetan, kontuan izanik beharrezkoa dela Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategian lehentasunezkotzat identifikatutako palanka teknologikoekin lotutako teknologien sustapena barne hartzen duten materialak egitea.

SPRIko Eraldaketa Digitalaren Arloak zuzenean gainbegiratuko ditu proiektuko taldeak egindako lanak.

SPRIk eskatu ahal izango du proiektuan jende gehiago sartzea unean uneko beharren arabera, betiere haien profilak lantaldean proposatutako pertsonen antzekoak badira.